



OLLOKIKO GAZTE ELGAZTE ELKARTEAREN LOGOA SORTZEKO LEHIAKETAREN OINARRIAK

Herriko gazteria guztia bilduko duen elkarte bat sortzeko proiektua abian jarri dela eta, Ollokiko Auzo Elkartek logotipoa diseinatzeko lehiaketaren deialdia egin du. Logotipoa elkartearen irudia izango da, eta honako hauek dira oinarriak:

OINARRIAK

1. Helburua:

Logotipo aktibo eta dinamiko bat diseinatzea, "Asociación jóvenes de Olloki/Ollokiko gazte elkartea" proiektua erraz identifikatzeko. Proiektuaren helburua da herriko gazteak haren sorkuntzan inplikatzeko, jarrera ekintzaileak eta ingurunea biziberrituko duten ekimenak bultzatuz, batez ere, berdinen arteko informazioaren, prestakuntzaren eta esperientzia-trukearen bitartez.

2. Parte-hartzaileak:

14 eta 30 urte bitarteko pertsonak, 2020ko abenduaren 31 baino lehen Ollokin (Esteribar Harana) errolatuta daudenak eta dagokion inprimakiaren bidez gazte-elkartean alta eman dutenak.

3. Proposamena:

a) Diseinuak originala eta argitaratu gabea izan beharko du.

b) Izaera gaztea eta dinamikoa islatu eta Oloki herriakin lotuta egon beharko du.

c) Diseinua bi formatutan aurkez daiteke:

- DIN-A4 tamainako paperean
- Formatu digitalean (USB, CD edo antzekoa), gehieneko kalitateko JPEG bertsioa (gutxienez 1500 pixel) edo TIFF (ahal dela, Formato Bektoriala), web-orrirako irudi gisa erabili ahal izateko, tamaina handiko inpresioetarako...

d) Fitxa tekniko bat aurkeztuko da, erabilitako koloreak eta iturriak adieraziz eta proposamenaren sinbologia azalduz.

4. Aurkezpena:

a) Proposamenak jasotzeko epea 2020ko urtarrilaren 5eko 14:00ak arte egonen da zabalik.

b) Lanak mailto:juventud_gaztea@olloki.com helbidean edo Oloki gizarte etxean bertan entregatu ahal izango dira (ohiko ordutegian edo hortik kanpo, alde zurretik posta elektronikoz edo watxap bidez hitzordua eskatuta).

c) Lanak gutun-azal itxi batean entregatuko dira, "Oloki Gazte Elkartearen Logotipo lehiaketa" izenburua eta parte-hartzailearen ezizena idatzita. Gutun-azal handi horren barnean aurkeztu beharko dira: logo proposamena eta itxitako gutunazal txikiago bat ezizena idatzita (ezizen berdina), eta honekin batera, parte-hartzailearen datu pertsonalak jasotzen dituen orri bat ere: izen-abizenak, NAN, jaioteguna, helbidea, telefonoa eta posta elektronikoa. Adingabea izanez gero, tutorearen (aitaren, amaren edo legezko ordezkariaren) izen osoa eta telefono mugikor zenbakia aurkeztu beharko du, bai eta lehiaketan parte hartzeko baimen sinatu bat ere.

5. Hautaketa:

a. Oloki Auzo Elkarteko batzordekideek osatuko dute epaimahaia.

b. Lehiaketaren erabakia 2020ko urtarrilaren 10ean jakinaraziko da. Ondoren, aurkeztutako diseinu guztien erakusketa egingo da.

c. Epaimahaiak lehiaketa esleitu gabe uzteko eskubidea izango du, aurkeztutako lanak ez badatoz bat lehiaketaren helburuarekin.

6. Saria:

Sari bakarra emango zaio lehiaketaren irabazleari, 100 €-ko balioa duen opari-txartela, eta ordainketa mota hori onartzen duen edozein saltoki edota establezimendutan erabili ahal izango da. Txartelaren saldoa ez da inolaz ere diru xehez ordainduko, ez kutxazainean, ez bulegoan.

7. Jabetza intelektual:

Saritutako logoa eta aurkeztutako lan guztiak Ollokiko Auzo Elkartearen jabetzapean geratuko dira. Elkarte horrek edozein bide erabiliz erabili eta erreproduzitu ahal izango ditu, eta parte-hartzaileek eta irabazleek uko egingo diete jabetza intelektualeko eskubideei.

8. Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri guztiak onartzea dakar.

